

XEDAPEN OROKORRAK

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA

1924

AGINDUA, 2015eko apirilaren 17koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Herri Administrazio eta Justizia Sailaren, eta hari atxikitako Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (IVAP) eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren datu pertsonalak dituzten fitxategi automatizatuari buruzko Agindua aldatzekoa.

2014ko azaroaren 30ean argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian 2014ko azaroaren 28ko Agindua, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Herri Administrazio eta Justizia Sailaren, eta hari atxikitako Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (IVAP) eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren datu pertsonalak dituzten fitxategi automatizatuari buruzkoa.

Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazio eta Justizia Sailak Auzia Euskaraz izeneko proiektua sortu eta garatu du, auzi-eskeak osoki euskaraz izapidetzea lortze aldera. Horretarako, prozesu judizialean parte hartzen duten langile-taldeetan eragin behar da eta, horregatik, euskal eragile juridikoen sarea sendotze aldera, bi ekimen diseinatu dira aipatutako proiektuaren barruan: lehenengoa, Auzia Euskaraz aldizkaria, proiektua eta horren garapena ezagutzera emateko xedea duena; eta, bigarrena, Euskara-emaileak kanpaina, epaitegietan eta auzien esparruan euskararen erabilera bultzatzen duten pertsonen foroa sortuta. Proiektua osatzen duten ekimenetan parte hartzen duten langileen datu pertsonalak biltzeko, Auzia Euskaraz proiekturako datu pertsonalen fitxategi automatizatuak sortu behar da. Fitxategi hori sail honetako datu pertsonalen gainerako fitxategi automatizatuari erantsiko zaie.

Euskarri fisikoan jasotako izaera pertsonaleko datuen tratamenduan eta sektore publikoak zein pribatuak datu horiei gerora ematen dieten erabilera-modalitate orotan pertsona fisikoen ohorea eta intimitatea bermatu eta babestea da Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren xedea.

Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legeko 4. artikulua xedatzen duenez –abenduaren 13ko 15/1993 Lege Organikoak, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoak, 20.1 artikuluan xedatutarekin bat–, autonomia-erkidegoko administrazio fitxategiak sortzeko, aldatzeko eta ezabatzeko, dena delako fitxategia atxikita dagoen saileko titularrak agindua eman behar du. Indarrean dauden legeak eskatutako aipamen guztiak jaso beharko ditu agindu horrek, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da.

Horrez gain, urriaren 18ko 308/2005 Dekretuak, Eusko Legebiltzarraren 2/2004 Legea garatzen duenak, 2. artikuluan xedatzen du Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoek Datuak Babesteko Euskal Bulegoari jakinarazi beharko diotela datu pertsonalen fitxategiak sortu, aldatu edo deuseztatu izana, gorabehera horiek Datuak Babesteko Erregistroan inskriba daitezten.

Hala, bada, agindu honek 2014ko azaroaren 28ko Agindua aldatzen du, xedapen honen artikulua bakarrean eta eranskinean jasotzen diren baldintzetan fitxategi bat sortzeko.

Hori dela eta, hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.— 2014ko azaroaren 28ko Agindua aldatzea, hau da, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Herri Administrazio eta Justizia Sailaren, eta hari atxikitako Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (IVAP) eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren datu pertsonalak dituzten fitxategi automatizatuei buruzkoa.

Luzatu egin da Herri Administrazio eta Justizia Saileko fitxategien zerrenda, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuaren 2014ko azaroaren 28ko Aginduak, Herri Administrazio eta Justizia Sailaren, eta hari atxikitako Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (IVAP) eta Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren datu pertsonalak dituzten fitxategi automatizatuei buruzkoak, «Datu pertsonalak dituzten fitxategi automatizatuen zerrenda» izeneko I. eranskinaren barruko A) atalean, «Datu pertsonalak dituzten Herri Administrazio eta Justizia Saileko fitxategi automatizatuk» izenekoan, jasotzen duena; izan ere, «Fitxategi sortu berriak» eranskinean bildutako izendapen eta ezaugarrien araberako fitxategia erantsi da.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Zerbitzu Zuzendaritzak Datuak Babesteko Euskal Bulegoko erregistroari jakinaraziko dizkio sortutako fitxategiak eta bertan inskribatzeko eskaera egingo dio.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko apirilaren 17a.

Herri Administrazio eta Justiziako sailburua,
JOSU IÑAKI ERCORECA GERVASIO.

ERANSKINA

«FITXATEGI SORTU BERRIA»

Fitxategien zerrendan izango duen kokapena, izena eta edukia.

9.13.– Auzia euskaraz proiektua

a) Fitxategiaren helburua eta aurreikusitako erabilerak:

– Helburua: Zuzenbidearen arloan euskararen erabilera bultzatzen duen taldea osatzen duten pertsonen jarraipena egitea Auzia Euskaraz proiektua garatzen den bitartean.

– Aurreikusitako erabilera: www.auziaeuskaraz.eus webgunean argitaratzea.

b) Zer pertsonari edo talderi buruzko datuak lortu nahi diren:

Justiziaren edota Zuzenbidearen alorrean euskara erabiltzen duten edo euskaraz lan egiten duten pertsonak, hala nola, epaileak, fiskalak, idazkari judizialak, funtzionario judizialak, abokatuak, prokuradoreak, auzitegi-tako medikuak, talde psikosozialetako partaideak, notarioak eta unibertsitateko ikasle zein irakasleak.

c) Datuen jatorria eta datuak biltzeko prozedura:

– Jatorria: interesdunek emandako datuak.

– Jasotzeko prozedura: lineako inprimakiak, paperezko inprimakiak eta posta elektronikoa.

d) Fitxategiaren oinarritzko egitura:

– Identifikazio-datuak (ID).

– Pertsonaren ezaugarrien datuak (EP).

– Ikasketei eta lanbideari buruzko datuak (IL).

e) Datuen lagapenak eta komunikazioak:

Ez da aurreikusi.

f) Organo arduraduna:

Justizia Administrazioiko Zuzendaritza.

g) Datuetara jo, datuak aldatu, aurka egin eta ezabatzeko eskubidea erabiltzeko zein zerbitzura jo behar den:

Herri Administrazio eta Justizia Saila
Justizia Administrazioiko Zuzendaritza
Donostia kalea 1
01010 Vitoria-Gasteiz

h) Fitxategiaren segurtasun-maila:

Oinarritzkoa.